

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabako Burgeluko udalerrian, Añua herrian dagoen ahuntz-esnearen abere ustiategi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2019-0013

Eskatzailea: Iñaki Eceiza Fernandez de Larrea.

Iñaki Eceiza Fernandez de Larreak eskatu du Burgeluko udalerrian, Añua herriko 1. Poligonoko 787-788 lursailetan dagoen ahuntz-esnearen (gaztaia egiteko) abere ustiategiaren sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezenean, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten Burgeluko udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 5ean

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGUIRRE ORCAJO